

MASTER-TESIA ZER DEN

Master Amaierako Lana (MAL) edo Master Tesia ikastaroaren **gairik garrantzitsuena** da, hala dagozkion kredituengatik (18/60, guztizkoaren ia heren bat), nola bere edukiagatik.

MAL proiektu originala da eta, salbuespenak salbuespen, banakakoa. Oro har, **ikertzeko** helburua izango du, baina baita **praktika profesionalaren** ukitu bat ere. Gutxienez ere Masterreko irakasle batek zuzenduko du. Masterrekoa ez den zuzendarikidea egon ahal da eta, batez ere, MAL kanpoko zentro batean egiten bada.

Xedea

Masterrean zehar egin diren ikasgai ezberdinekin **bereganatutako gaitasunen** aplikazioa erakustea.

Edukia

MAL delakoak Sistema Adimentsuen edo Konputazio Ingeniaritzaren teknikak erabili beharko ditu, halaberrez. Izaera **teorikoa** edo **praktikoagoa** izan dezake, baina betiere teknika horien ingurukoa.

Masterra lortzeak doktoregoa egitera ez derrigortu arren, ikasketen izaera ikertzaileak MAL geroko doktorego-tesi baten aurreko edo horren sarrera gisa planteatzea ahalbidetzen du. Hala ere, esan bezala, jorratutako gaiaren litekeen alderdi praktikoa profesionala aurreikusita dago.

MAL masterrean esku hartzen duen [ikerketaren talderen](#) batean, edo [kanpoko ikerketa erakunde](#) batean (beste unibertsitate sail batzuetan, teknologia zentroak eta lankidetzak hitzarmena sinatuta duten edo sina dezaketen enpresetan) egingo da. Ikus [MAL-en eskaintza](#).

Ikasleak MALaren gaia proposatu ahal izango du. Ikasketa Batzordeak proposatutako gaiaren inguruko ezagutzak dituen zuzendaria esleituko dio. Ikasleak masterrean esku hartzen duen ikerketa talderen batek edo hitzarmena duen kanpoko erakunderen batek proposatutako gaia aukeratu ahal izango du.

Zuzendaritza

MAL guztiei, gutxienez ere, masterreko ikerketa talderen bateko edo masterreko beste sail laguntzailearen bateko [zuzendari doktore](#) bana esleituko zaie.

MAL teknologia zentro edo hitzartutako enpresaren batean garatzen bada, bertako zuzendarikidea ere esleituko da.

Harremanak

Ikaslearen eta zuzendariaren, eta hala badagokio, tutorearen arteko komunikazioa jarraitua izan beharko du. Orokorrean, zuzeneko elkarrizketen (baliteke modalitate birtualean bideragarria ez izatea), posta elektronikoen, txaten eta bideo-konferentzien bidez.

Parte-hartzaileek arreta berezia eskaini beharko diote MALaren alderdi honi, arrakastaz eskuratzeko gaitasun nagusia baita.

Txostena

MALari buruzko txosten **idatzia** prozedura nagusia da. Eskuarki, banakoa da, eta proposatutako gaiaren inguruko berrikuspen bibliografikoa, edo artikuluen aipamena, edo gaiaren arloaren egiteko zehatza burutzen duten algoritmoen zehaztapena izan ahal da.

Txostena euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez idatzi ahal izango da.

Ebaluazioa

Presentziazko ekitaldi batean egingo da MALaren ebaluazioa, **saio publikoan**, eta epaimahai baten aurrean gaia aurkeztu beharko da. Ondoren, aurkeztutako lanaren kalitate tekniko eta zientifikoa ebaluatu ahal izateko egoki irizten dituzten galderak egiten dituzte epaimahaikideek.

Idatzizko txostenaren **kalitatea, aurkezpena** eta **emaitzak** baloratuko dira.

Modalitate birtualean, oro har, bideo-konferentzia egin beharko da. Ikaslearen baldintzek ahalbidetuko balute, presentziazkoa izan liteke.

Epaimahaia

UPV/EHUren Unibertsitate Masterren kudeaketa araudiak ezartzen du defentsa publikoa MALen epaimahai baten aurrean egin behar dela.

Gutxienez ere hiru doktorek osatuko dute Epaimahaia, eta bi behintzat masterraren programakoak izango dira. Kideetako bat zuzendaria izan liteke.

Oharra: Modalitate birtualerako garrantzitsua da ikaslea identifikatzea. Ikasketa Batzordeak, MAL aren zuzendaritzak eta Epaimahaiak, ikaslearen identitatea bermatzeko, eta horren lekuan inor ez aritzea galarazteko, beharrezko neurri egokiak hartuko dituzte.

MASTER-TESIA AURKEZTEKO PROZEDURA

- Master-Tesia defendatzeko epea irailaren 30ean bukatzen da (egindako matrikularen epea amaitzen da).
- Master-Tesiaren memoriaren formatoa **pdf**-a izango da. Ez dago Master-Tesiaren memoriarako derrigorrezko egiturarik. Lagungarri gisa halakoxe bat:
Azala ([azalerako txantilo](#)) erakusgarri bat; ez da derrigorrezkoa, baina kontuan hartu jarritako informazioa).
 - Laburpena (gehienez orri batekoa)
 - Hitz-gakoak
 - Aurkibidea
 - Sarrera
 - Helburuak
 - Metodologia
 - Garapena
 - Aplikazioa
 - Ondorioak
 - Bibliografia
 - Eranskinak
- Zuzendariaren eginbeharra da Batzorde Akademikoari epaimahaia proposatzea.
- Epaimahaikideak 3 izango dira, tartean zuzendaria izan daitekeelarik.
- Kontuan hartuta epaimahaikideek bi aste gutxi gorabehera beharko dutela memoria aztertzeko, aurkezte eguna baino bi aste lehenago bukatu beharko da memoria eta zuzendariaren onespena lortu.
- Memoriaren kopia bat masterraren arduradunari bidali beharko zaio (yosu.yurramendi@ehu.eus).
- Defentsa publikoa izan dadin KZAA saileko idazkari administratiboari (elena.bidondo@ehu.eus) bidaliko zaio beharrezko **fitxa** (zuzendari akademikoak ere egin dezake gelaren erreserba), gutxienez lau egun aurretik.
- Epaimahaiko idazkariak ebaluazioaren **akta eskatu**ko dio masterreko idazkari administratiboari (elena.gonzalez@ehu.eus) aurreko **fitxa** bidaliz. Akta norbanakakoa da.
- Epaimahaia 'ohorezko matrikula' proposa diezaioke Akademi-Batzordeari (20 ikasletik bat bakarrik eman liteke). Kasu horretan bi akta sinatzea komeni da, bat 10ekoa rekin eta bestea, badaezpa ere ohorezko matrikularekin. Honela, erraztuko egingo dira bide burokratikoak.
- Memoria publikoa izatea nahi bada, geroko ikasleen, ikertzaileen eta unibertsitatetik kanpoko edonoren eskura egon dadin, UPV/EHUk badu [biltegi berezi bat](#). Horretarako baimena eman behar da ([agiri hau](#) bete eta masterraren arduradunari bidali). Akademi-Batzordeak memoria argitaratzea hobesten du.
- Behin defentsa egina eta ebaluatua izanez gero, **akta sinatu** eta idazkaritza administratiboari eman behar dio epaimahaiko idazkariak. Hemendik aurrera, ebaluazioa positiboa eta ikasgai guztiak gaindituak izanez gero, [masterreko titulua eskatzerik](#) badago .